

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 75/2022 FORU DEKRETUA, maiatzaren 17koa. Honen bidez, 2022ko ekitaldian Bizkaian arte eszenikoen ikuskizunak (musika, dantza eta antzerkia) antolatzeko Foru Aldundiak emango dituen diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onesten dira (Garatu Programa).**

Kultura sustatzea eta herritarren esku jartzea: horra administrazio publikoek ezinbestez hartu beharreko konpromiso bat. Eta, hura gauzatzeko, baliabide egokiak bideratu behar dira, eta, besteak beste, sustapen- eta babes-neurriak hartu, kultur jardueraren garapena eta aurrerabidea bermatuko badira.

Horrela zehaztutako eremu batean, Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu ahaztu nahi, ezta ahaztu behar ere, gure lurraldean diharduten kultur industrien garrantzia eta lana. Ildo horretan, industria horiek azken garai hauetan garapen, gizarte, kultura eta ekonomia-aren arloetan egin duten ekarpena nabarmenki haziz joan da, batez ere eragile horien lanerako gune egokiak eskaintzen dituzten kultur azpiegiturak, gehienetan publikoak, egoteagatik.

Kontuan hartuta kultur industrien arloa ez dela oraindik sektore sendo bat eta haien merkatuak erakundeen laguntza behar duela egonkortasuna lortzeko, azken urteetan Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Garatu programaren bidez bideratu du laguntza hori. Arte eszenikoen –musika, dantza eta antzerkia– ikuskizunak antolatzeko foru-dirulaguntzen deialdi bat da Garatu, eta bi helburu hauek ditu: batetik, Lurralde Historikoan kultura-eskaintza erakargarria bermatzea, kultura-garapenaren arloan erreferente bihur dadin, eta, bestetik, ezaugarri horiek dituzten proiektuak gauzatzeko gaitasuna duten kultura-eragileei laguntza ematea, apurka-apurka egonkortasun handiagoa lor dezaten.

COVID-19 pandemiak sortutako ezohiko egoera zela eta, diru-laguntza lerro hori eten egin behar izan zen 2020 eta 2021 ekitaldietan. Hala ere, Bizkaiko arte eszenikoen, musikaren eta dantzaren sektoreko enpresa eta langile autonomoen egitura mantentzeko foru diru-laguntza berrien barruan sartu zen (ESKENA Garatu).

2022ko ekitaldi honetan, egoera soziosanitarioak pandemiaren aurreko errealitate baterantz izan duen bilakaerari esker, zuzeneko ikuskizunak berreskuratu ahal izan dira, eta horrek berekin dakar, nahitaez, diru-laguntzen lerroak berrartu beharra. Ildo horiek, oraingoa bezala, etengabeak izan dira Sail honek duela hamarkada bat baino gehiagotik sustatutako sustapen-jardueran.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio proposatutako xedapen orokorraren xede den gaiari buruzko eskumena, hala xedatzen baitu azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzkoak. Lege horren 7.a)13 artikuluan, zehazki, eskumen eskusiboa ematen zaie lurraldeoi, besteak beste, interesekoak diren bertako kultura-organismoak sortu eta mantentzeko arloan.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, zeinak onesten baitu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua, eskumen hau esleitzen dio sail horri: kulturari buruzko proiektuak sustatzea.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datzekien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Azkenik,



maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarra.—*Foru Aldundiaren diru-laguntza batzuen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea***

2022ko ekitaldian Bizkaian arte eszenikoen ikuskizunak (musika, dantza eta antzerkia) antolatzeko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira (Garatu Programa).

AZKEN XEDAPENAK

**Azken Xedapenetako Lehenengoa.—*Ahalmena ematea***

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, foru dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena.—*Indarrean jartzea***

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2022ko maiatzaren 17an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

**2022KO EKITALDIAN BIZKAIAN ARTE ESZENIKOETAKO IKUSKIZUNAK  
(MUSIKA, DANTZA ETA ANTZERKIA) ANTOLATZEKO FORU  
DIRU-LAGUNTZEN OINARRIAK ETA DEIALDIA (GARATU PROGRAMA)****I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. – Diru-laguntzaren xedea**

1. Foru dekretu honen arabera diru-laguntzak jaso ditzakeen jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan arte eszenikoen (musika, dantza eta antzerkia) antolaketa da.

Diru-laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2022ko ekitaldiaren barruan gauzatu beharko dira.

2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

- a) Talde edo/eta artisten birak, eta interpretatzaile berak bi udalerrri baino gehiagotan jardutea da joko da biratzen.
- b) Antzoki publikoen egitarau egonkorak.
- c) Doakoak diren edo bost (5) euro baino gutxiagoko sarrera kobratzen duten ikuskizunak.
- d) Gabon-garaia barnean hartzen duen programazioa duten ikuskizunak edo proiektuak. Gabon-garaia da 2022ko urtarrilaren 1etik 6ra, egun bi horiek barne, eta 2022ko abenduaren 21etik 31ra, egun bi horiek barne.
- e) Herriko jaiak direla-eta udalerrriak jai-egitaraua garatzen duen garaiak barnean hartzen dituen programazioa duten ikuskizunak edo proiektuak.
- f) Musikaldiak eta operak.

3. Honako kontzeptu hauek jaso ditzakete diru-laguntzak:

- a) Kanpoko kontratazio-gastuak (katxeta eta komunikazio-gastuak).
- b) Ekoizpen- eta muntaketa- gastuak.

Eskatzaileak zuzenean egin eta kudeaketa gastu propiotzat justifikatzen dituen ekoizpen- eta muntaketa-gastuak diruz laguntzen den ikuskizunaren muntaketa- eta produkzio-gastu osoaren %15 lagun daitezke, gehienez.

Diru-laguntzaren eskatzailearen izeneko fakturen bidez kontratatutako diru-transakzioa eragin dutenak bakarrik onartuko dira halakotzat, hortaz, ez da onartuko beste pertsona edo erakunde batzuek ordaindutako gasturik.

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Diru-laguntzaren eskatzailea ez den beste batek zuzenean ordaindutako gastuak.
- b) Gauzatan ordaindutako babesa.
- c) Eskatzailearen egitura kudeatzeagatik sortutako gastuak (langileen gastuak -oinarri honetako 3.b) idatz-zatiko lehenengo lerrokadan aipatutakoak izan ezik-, lokalak mantentzeko gastuak eta egitura funtzionala mantentzeko gastuak).
- d) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
- e) Banku-kontuen interes zordunak.
- f) Korrituak, errekaruak, administrazio-zehapenak eta zigor-zehapenak.
- g) Prozedura judizialen gastuak.
- h) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean agertzen



den aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan.

- i) Oro har, maiatzaren 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak.

4. Foru dekretu honen helburua pertsona eta entitate eskatzaileen ekintzak babes-tu eta osatzea da, baina ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

## **2. oinarria.— *Pertsona eta erakunde onuradunak***

1. Foru dekretu honetan araututako diru-laguntzak honako hauek jaso ditzakete: enpresa-jarduerak egiten dituzten sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, sozietate kooperatiboak eta sozietate zibilek (Kode Zibileko 1669. artikulukoak izan ezik) eta pertsona fisikoak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Alta emanda egotea EJZren epigrafe hauetako batean: Ikuskizunak (zinea eta kirola izan ezik): 965.1, 965.2, 965.3 eta 965.4.
- c) Helburu sozial legez arte eszenikoetako ikuskizunen antolaketa edukitzea.

2. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:

- a) Ekipamenduen jabetza duten enpresak, baldin eta beren jardura soilik bada tresna horiek beste batzuei alokatzea, edozein modalitatetan (ordainketa, takila, eta abar), kultur ekitaldiak egiteko.
- b) Arauak honen xedeari lotutako ekitaldiak antolatu, egin eta kudeatzen dituzten beste enpresa batzuen bitartekari moduan diharduten enpresak.
- c) Ondasun-erkidegoak.

3. Era berean, honako pertsona edo erakunde hauek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso:

- a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, zehapenak ezartzen duen aldian.
- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

## II. TITULUA

### ARAUBIDE JURIDIKOA

## **3. oinarria.— *Aplikatu beharreko araudia***

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea, 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Seguratasuneko Eskema Nazionala arautzen duena, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarringarritasunaren Eskema Nazionala



arautzen duena, eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

#### **4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluaren xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluaren ere.

### III. TITULUA

#### PROZEDURA

#### **5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. Artikulua 2. eta 3. arabera, diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera> egoitza elektronikoren bidez aurkeztu beharko dira.

2. Eskatzaile bakoitzak gehienez, lau (4) eskabide aurkeztu ahal izango ditu, ekitaldi bakoitzeko bat. Eskatzaile batek lau (4) eskabide baino gehiago aurkezten baditu, erregistratutako azkenak baztertuko dira.

3. Eskabideak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 2tik 2022ko ekainaren 28ko 13:30era arte izango da.

#### **6. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak**

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera> egoitza elektronikoa aurkeztu eta betetzeko dagoen eredu ofiziala erabili behar da 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Sozietatearen estatutuak edo eraketa egiaztatzen duten agiriak, sozietatearen xedea eta egoitza adierazten dutenak.

Aurreko dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

b) Proiektuaren azalpena, gutxienez honako alderdi hauek jasoko dituena:

1) Azalpen-memoria.

2) Lortu nahi diren helburuak.

3) Ekintza egiteko lekuak eta datak (ekintza egingo den gela edo gunea erre-  
serbatu dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira; haren titularra  
den erakundeak edo entitateak eman beharko ditu agiriak).

c) Ikuskizuna egingo den tokiak baimenduta duen gehieneko jarleku kopurua zein den egiaztatzen duen agiria.

d) Diru-laguntza eskatu duen eskatzaileak eta kontratatu nahi den artistak, taldeak edo elkarte artistikoak, edo hala badagokio, azken horien legezko ordezkariak sinatutako kontratuak (legeak ezarritakoaren arabera).

Eskabidea aurkezten denean kontratuak sinatu gabe badaude, eskatzaileek, bai zuzenean artista, talde edo elkarte artistikoarekin zein horien legezko ordezkariarekin, horretarako izandako harremanak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte.



Legezko ordezkariaren esku-hartzearen bidezko kasuetan, hark jarduteko duen ahalduntzea egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

- e) Diru-laguntzaren xedeko ikuskizunaren antolaketa edo kudeaketari zuzenean loturiko eskatzaileak enplegatutako langileen zerrenda eta haien kontratuak.
- f) Legezko edo borondatezko ordezkari zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

3. Nolanahi ere, Egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako hau bete beharko da:

- a) 10.1.f) oinarriaren arabera baloratu ahal izateko, Bizkaiko Kultura eta Sormen Ekosisteman profil publiko bat badago.
- b) 10.1.h) oinarriaren arabera baloratu ahal izateko, eskatzailearen zuzendaritza organoa osatzen duten pertsonen kopurua, sexuaren arabera banatuta, eta baztordeburuaren edo kudeatzailearen generoa zehaztuta.
- c) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, eskatzaileak urtean aurreikusten dituen diru-sarrera guztiak.

#### **7. oinarria. — Dokumentazio egiaztagarria**

Dauden datu-bitartekaritarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilia, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek parte-hartzaileei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

- a) Eskatzailearen identitateari buruzko datuak.
- b) Banku kontuaren titulartasun datuak.  
Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.
- c) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren ziurtagiria, 2.1 b) oinarrian ezarri denarekin bat.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzaren Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

#### **8. oinarria. — Eskabideak zuzentzea edo hobetzea**

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.





2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

### **9. oinarria. – Diru-laguntzak emateko araubidea**

Diru-laguntza horiek norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako eskabideak alderatuko ditu, 10 oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Foru diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu 10. oinarriko 2. paragrafoan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-diru-laguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien diru-laguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien diru-laguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako diru-laguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

### **10. oinarria. – Diru-laguntzak ebaluatzeko irizpideak**

1. Diru-laguntzetarako eskabideei buruzko ebazpen-proposamena egiteko eta haien zenbatekoa zehazteko, epaimahai kalifikatzaileak ondorengo irizpideak eta haien haztapena hartuko ditu kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

- a) Proposamenaren eragina Bizkaiko kultur ingurunean (15 puntu gehienez) eta proiektuan sustatzea proposatzen den diziplina (25 puntu gehienez), gehienez ere, 40 puntu.
  - b) Proposamenaren eragina, kontuan hartuta aurkeztutako proiektuaren garapenean ingurune geografikoa, Bizkaiko Lurralde Historikoan kultur eskaintzaren lurralde-oreka sustatze aldera: 10 puntu, gehienez.
  - c) Proiektuaren gastu-aurrekontu osoaren (araztu ondoren) eta proiektuan parte har lezaketan pertsonen kopuruaren artean ateratako ratioa: 20 puntu, gehienez. Irizpide hau baloratzeko, ekitaldia egingo den tokiaren baimendutako gehieneko edukierari begiratuko zaio. Elkarren arteko harremana zuzenean proportzionala izango da (gero eta ratioa handiagoa, gero eta puntu gehiago).
  - d) Enpresan lan egiten duten eta diru-laguntzarako aurkeztutako proiektuaren antolaketa edo kudeaketarekin zuzeneko lotura duten pertsonen kopurua: 13 puntu, gehienez; gero eta langile kopuru handiagoa gero eta puntu gehiago.
  - e) Bizkaiko taldeen eta euskaraz egindako ikuskizunen bultzada edo/eta zabalkundearen eragiten duten proiektuak: 10 puntu, gehienez.
  - f) Eskaera egiteko epea amaitzen denean, eskatzaileak eta/edo proiektuak Bizkaiko Kultura eta Sormen Ekosisteman, <https://web.bizkaia.eus/eu/bizkaia.eus/eu/kultura-eta-sormen-ekosistema>, profil publiko bat izatea 3 punturekin baloratuko da. Egoera hori Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du.
  - g) Aurkeztutako artisten kopurua gutxienez emakumeen % 50ekoa bada, 3 puntu emango dira.
  - h) Erakundeko zuzendaritza-organoko lehendakaritza edo erantzukizun-maila goreneko kargua emakume batek badu, puntu 1 emango da.
2. Epaimahai kalifikatzailearen ustez, gutxienez 60 puntu lortzen ez dituzten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.



3. Hau izango da diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa:
    - a) Ehun mila (100.000) euro baino gutxiagoko aurrekontua duten ikuskizunetarako, haren %50eraino, eta gehienez ere hogeita mila (20.000) euro.
    - b) Ehun mila (100.000) euroko edo hortik gorako aurrekontua duten ikuskizunetarako, haren %30eraino, eta gehienez ere hogeita hamar mila (30.000) euro.
- Emandako zenbatekoak ezin izango du gainditu onuradunak eskatutako zenbatekoa.

**11. oinarria. — Aholkularitza**

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri web orrian: <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>.

**12. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea**

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, eta epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonen behar besteko gaitasun tekniko, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Halaber, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik. Epaimahaiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

**13. oinarria. — Ebazpena**

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa bezela, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Egiaztapen hori egin ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak edozein ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea lau (4) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak emango du ebazpena, horretarako izendatutako epaimahaiaren proposamena kontuan hartuta.

Epe hori eskabideari buruzko beren-beregiko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago beren-beregiko ebazpena eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko zaie foru-agindua interesdunei.

Bertan berriaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak nahibadako berraztertze-errekurtsioa jar dezakeela haren aurka, Bizkaiko Foru





Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari zuzenduta, jakinarazi eta bihar-ramunaz geroko hilabeteko (1) epearen barruan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, modu berean zenbatutako bi (2) hilabeteko epearen barruan.

#### **14. oinarria. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna**

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin (Bizkaiko Foru Aldundiak berak ematen dituenak izan ezik).

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bat eginda, inola ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (352. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

Ondorioz minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

### IV. TITULUA

#### **DIRU-LAGUNTZAK KUDEATZEA ETA JUSTIFIKATZEA**

#### **15. oinarria. — Ordainketa**

1. Deialdi hau ebazten duen foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz eskaerari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Kultur Ekintzaren Zerbitzuak diru-laguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

Hala ere, onuradunen batek edo batzuek emandako diru-laguntzari uko egiten badiote, uko horrek ez du inolara ere ekarriko deialdi honen ebazpenaren baldintzak aldatzea.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

#### **16. oinarria. — Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea**

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du diru-laguntza forala bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapi-



detuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia. Itzuli behar den diru-laguntza ere aipatu behar da.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, egoitza elektronikoaren bidez diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

#### **17. oinarria.— Justifikazioa egiteko epea eta era**

Foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen pertsona eta erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. 2022an diru-laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 57. artikularekin bat etorrita, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean justifika behar dute proiektua egin dela, hura emateko oinarri izan ziren baldintzak bete direla eta diruz lagundutako proiektuaren zenbateko araztuaren gastua jarduerari aplikatu zaiola. Horretarako, agiri hauek bete eta aurkeztu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera> egoitza elektronikoan 2023ko otsailaren 28ra arte:
  - a) Emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, bertan honako hauek zehaztuta: noraino burutu diren jarduerak, eskaini diren zerbitzuak eta bete diren eginkizunak, bai eta diruz lagundutako proiekturako erabili diren giza baliabideak eta baliabide materialak ere.
  - b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena:
    - 1) Proiektuari egotzitako sarrera eta gastuen egoera.
    - 2) Gastu-partida bakoitzean, diru-laguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda.
    - 3) Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrendan jaso diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.
    - 4) Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen xehetasuna, eta, hala bada, finantzaketa propioarena ere bai.
  - c) Diruz lagundutako gastuaren aurrekontua justifikatzeko, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru diru-laguntzaren onuradunak egiaztagiria aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkieten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkaturuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.
3. Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen, ikus-entzunezko eta informatikako materialen aleak, baita beste edozein motatako agiri grafikoren aleak ere aurkeztea, guzti hau euskarri elektronikoan; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza eman duela. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 18. oinarriaren



e) letran ezarritakoarekin bat etorrita. Betebehar hori laguntza eman zaiela jakinarazi ondoren egindako jardueri bakarrik dagokie.

**18. oinarria. — Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebehar batzuk**

Onuradunak betebehar hauek ere izango ditu:

- a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea Kultur Ekintza Zerbitzuari, egoitzaren bidez.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea Kultur Ekintza Zerbitzuari, egoitzaren bidez. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura arloko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- d) Euskara, Kultura eta Kirol eta Ogasun eta Finantza sailek eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiaztatzeke gegin dezaketen behar beste jardun onartzea.
- e) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenearan esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:  
«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».  
Euskara hutsean garatutako proiektuetan, gainera, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea diru-laguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta hedapenean, bai euskarri grafikoan, bai ikus-entzunezko baliabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak, etab.). Halaber, euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- g) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizi-eremua, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkari eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- h) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialean.
- i) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.



- j) Egiatzatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragin-garrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.
- k) Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak deitutako bilera, foro eta gainerako koordinazio-ekitaldietara joatea.
- l) Enpresen deslokalizaziorik ez egitea, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera (enpresa-deslokalizazioen kasuan Foru Sektor Publikoaren laguntzak berreskuratzeari buruzkoa).
- m) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduari 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- n) Deialdi honi dagokionez, diru-laguntza foral baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduari 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak.  
Onartutako azpikontratazioaren gehienezko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren %90 izango da.

**19. oinarria. — Itzulketa**

1. Zenbait kasutan itzuli egin beharko dira jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak. Hain zuzen ere, hala egin beharko da baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrian edo Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada itzuli beharko dira:

- a) Justifikatu beharra betetzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua bete ez bada.
- c) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Euskara, Kultura eta Kirolaren Saileko Euskara Zerbitzuak eskaera egin ondoren.
- d) 2022ko ekitaldian proiektua ez egitea.
- e) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- f) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- g) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

**20. oinarria. — Datu pertsonalen babesa**

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordean aplikatu beharreko gainerako araudia.

**21. oinarria. — Aurrekontuko partida**

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2022. urtean indarrean dagoen aurrekontu muga hau da:



Ehun eta hamaika mila eta ehun (111.100,00) euro, 2022ko aurrekontuko 0405G/334104/44300, (2007/0211 proiektua) aurrekontu-partidaren kontura.

2. Eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan.